



FUNTSEZKO JARDUERAK

- **Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?**

Muxu merkatuaren kasuan, funtsezkoa jardueren artean lehentasun gutxien daukana ekoizpena da, izan ere, enpresak berak ez du ezer ekoizten, salerosketan oinarrituta dago.

Bestalde, beste bi jardueren artean lehentasun handiena duena arazoan konponketa izango litzake, trebetasun hau ondo landu eta aplikatzen jakin behar du gure taldeak. Izan ere, merkatua eraikitzerakoan edo saltzaileekin arazorik egoterakoan, gure taldeak erantzun on eta bidezko bat eman beharko luke, saltzaileen kasuan esateko, bi aldeak bat egiteko eta konponbidearekin ados egoteko.

Halere, gure plataformak (webgunea eta aplikazioa) eguneratua eukitzea ere funtsezkoa da. Arazorik egongo baleko merkatuaren kokapenarekin edo datarekin bertatik helaraziko beharko genuen mezua. Baita ere jarduera edo lehiaketarenbat antolatuko bagenu edo gure bezeroak gurekin harremanetan jarri nahi izanez gero, bertan izango dute informazio guztia. Honetarako, gure aldeko pertsona bat edo bik adituak eta oso trebeak izan beharko dira esparru honetan.

Aipatzekoa da, Muxuk ez duenez izango automatizatutako harremanik, gure taldeak garrantzi asko eta beharrezko denbora emango diola gure bezeroen proposamenak eta galderak erantzuteko.